

**LEKUNBERRIKO EMAKUMEEN ETA
GIZONEN ARTEKO AUKERA
BERDINTASUNERAKO I. PLANA
(2010-2013)**

Egileak:

Irene Gaston Ripa

Josune Irigoien Garcia

AURKIBIDEA

- Sarrera
- Biztanleriaren analisia
- Lege-esparrua

Europakoa

Estatukoa

Nafarroako Foru Erkidegokoa

- Planaren egitura
- Oinarri estrategikoak
- Landuko diren arloak

1. Udal-administrazioa eta Udaleko Aukera Berdintasunerako Zerbitzua
2. Parte-hartze soziala eta politikoa
3. Hezkuntza, hezikidetza eta prestakuntza
4. Kultura eta euskara
5. Enplegua eta landa-garapena
6. Gazteria, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea
7. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
8. Elkar aditzea eta erantzukidetasuna
9. Immigrazioa
10. Lurraldearen antolamendua, etxebizitza eta garraioa
11. Emakumeen aurkako indarkeria

- Inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa
- Kontzeptuen definizioa
- Bibliografia eta dokumentazioa

SARRERA

Azken urteotan, Lekunberriko Udalak berdintasuna landu du, berau egiazkoa edo eraginkorra izan dadin.

2007an Udalaren Berdintasunerako Zerbitzua sortu zen, eta berdintasunerako teknikaria kontratatu. Urte horretan berean, *Consultoría Isos, Servicios para la Igualdad* enpresak *Análisis y Diagnóstico de la situación de Mujeres y Hombres en Lekunberri* izeneko lana egin zuen. Azterlanaren asmoa zen udalerrriaren berdintasunarekiko "argazkia" ateratzea, eta lan-esparruak eta lehentasunak agerian uztea.

Diagnostikoa lehen urratsa, eta ezinbestekoa, izan zen orain aztertzen ari garen "Lekunberriko emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako I. Plana" lantzeko.

Plana erreferentzia-esparrua izanen da, baita lau urtetarako (2010-2013) lan-tresna ere. Planaren barnean, udalaren Berdintasunerako Zerbitzuaren eta atal horretako Aukera berdintasunerako teknikariaren bitartez diseinatu, ezarri eta ebaluatuko diren politikak, helburuak, ekintzak, estrategiak eta jarduerak definitu dira.

Proposamen parte-hartzaile eta irekia den Planak udaleko arlo guztietan berdintasun-printzipioa aintzat hartzea du xedea, uste baitugu berdintasuna ez dela udaleko beste edozein arlorekiko loturarik ez duen afera, baizik eta udaleko arlo, atal eta jarduera guztietan kontuan hartu beharreko afera. Asmoa da zeharkakotasun edo <<*mainstreaming*>> printzipioa aintzat hartzea, gure ustez genero-ikuspegia udalaren arlo eta politika guztietan ezarri behar baita arian-arian.

Nazioartean, erkidegoan, estatuan, foru-erkidegoan eta udalerrietan berdintasunaren alde urrats nabarmenak eman badira ere, lorpen horiek ez dira nahikoak berdintasun erreala lortzeko; izan ere, oraindik ere nagusiki emakumeei eta beren eguneroko bizitzari eragiten dieten desberdintasunak eta diskriminazioak gertatzen dira. Horregatik, hain zuzen ere, berdintasun formala edo legezkoa bermaturik badago ere, berdintasun erreala ez da, oraindik ere, lortu.

Berdintasuna udal arloan, Lekunberrin, erreala izanen bada, ezinbestekoa da udalaren eta udal-arlo guztien konpromisoa, bultzada eta lankidetzak. Berdintasun errealerantz aurrera egiteko, beharrezkoa izanen da pentsamoldea aldatzea, jarrerak eta portaerak aldatzea, bizimoduak eta pertsonen arteko harremanak aldatzea; finean, gizarte-aldaketa.

Horrenbestez, Plan honen xede nagusia izanen da diagnostikoak agerian utziko dituen desberdintasunak berdintzea, eta arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzea, arian-arian.

BIZTANLERIAREN ANALISIA

2007an, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak emandako diru-laguntza eskuratuta, "Consultoría ISOS, Servicios para la Igualdad de Oportunidades" enpresa kontratatu zen Lekunberriko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko analisia eta diagnostikoa egin zezan. Diagnostikoa berdintasun-plana lantzeko lehen urratsa da; izan ere, udalerriko bizitza-arlo guztietan berdintasunak/desberdintasunak duen egoeraren inguruko "argazkia" egiteko aukera ematen digu.

Horrela, jarraian diagnostikoan lortutako emaitzen ondorioen laburpena jaso dugu.

BIZTANLERIA

- Lekunberri 1.295 biztanle zituen 2008ko urtarrilaren 1ean; horietatik 638 (% 49,26) emakumezkoak dira, eta 657 (% 50,74) gizonezkoak.
- 65 urtez gorakoen indizea handiagoa da, nabarmen, emakumezkoetan (% 58) gizonezkoetan (% 38) baino.
- 65 urtez gorako pertsonen artean % 58,23 emakumezkoak dira.
- Finkatutako adin-tarteak kontuan hartuta, biztanleen % 43,94k 30 eta 45 urte bitartean dituzte.
- Etorkinak biztanleriaren % 13,7 dira, eta horietan emakumezkoak % 47,91 dira.

FAMILIA

- 2001. urtetik aitzin, nabarmen egin du gora erroldatuen zerrenda Lekunberri (urte horretatik ia 500 pertsona gehiago bizi dira udalerrian).
- Honekin guztiarekin, jaiotzek eta jaiotze-tasak gora egin dute, eta familia-dibertsifikazioa gero eta handiagoa gertatzen ari da.
- Lortutako datuen arabera, herritar gehienak ezkondata daude, edo bikote-harremanean bizi dira.
- Halaber, datuen arabera, ugaltzeko adinean dauden pertsona gehienek haurren bat dute.

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

- Emakume diplomatuen eta lizentziatuen portzentajea gizonezkoena baino askoz altuagoa da (% 46,88 vs % 15,38, diagnostikoan lortutako datuen arabera).
- Lanbide-heziketako ikasketei erreparatuta, portzentajea altuagoa da gizonezkoetan.
- Lekunberriko gizonek emakumeek baino prestakuntza txikiagoa dute.
- Emakumezko ikasleek, gizonezkoekin alderatuta, nahiago dute Giza Zientzien arloko prestakuntza.
- Emakumeak, arian-arian, orain artean "gizonezkoenak" izan ohi diren ikasketa unibertsitarioak egiten hasi dira; gizonezkoak, ordea, ez dira neurri berean egiten ari "emakumezkoenak" izan ohi direnak.
- Lan ordaindua duten emakumeek eta gizonek aurrera begira duten prestakuntza-aurreikuspenari dagokionez, emakumeen % 25ek soilik du asmoa aurrera begira prestakuntza lantzeko; aldiz, gizonen % 53,85ek du prestakuntza-aurreikuspen hori.

LANA ETA ENPLEGUA

- Lekunberrin gehienbat emakumeak daude langabezian, nahiz eta herritar gehienek iritziz ez den oso zaila zonaldean lana aurkitzea. Lanaren kalitateari dagokionez, berriz, gehienek "txarra" dela irizten diote.
- Lekunberriko emakume aunitz etxean geratzen da hainbat urtez beren seme-alabak zaintzen. Gerora, ordea, ez dute zailtasun handirik izaten lan berri bat aurkitzeko. Hala ere, aitortzen dute ez dela gauza bera lan-merkatuan berriro txertatzea haurrak izanda, edo haurrik izan gabe.
- Lan-orientazioa oso berezia da: emakumeek, oro har, gizarte, hezkuntza, osasun eta antzeko lanbideen aldeko hautua egiten jarraitzen dute, eta beren prestakuntzarekin bat etorriko den lan kualifikatu batean jardun nahi izanez gero, Lekunberritik irten behar izaten dute.
- "Emakumezkoen" eta "gizonezkoen" lanbideen arteko bereizketa dago oraindik ere.
- Lanaldiari dagokionez, gizon gehiago dira lanaldi osoan dihardutenak, emakumeak baino. Emakumeak nagusi dira lanaldi partzialari dagokionez.

- Kontratu-motei dagokienez, nagusiki gizonak dute kontratu finkoa. Emakumeek nagusiki aldi baterako kontratuak dituzte, edo autonomoak dira; alde nabarmena gizonekin alderatuta.
- Gizonak egiten dituzten ikasketek lotura zuzenago dute udalerrian dagoen enplegu-eskaintzarekin.
- Lekunberriko biztanleen iritziz, zonaldean emakumeentzako dauden lanpostuak oso mugatuak dira, ordutegi txarra dute, lan-baldintza kaxkarrak, aldi baterakoak dira, eta gaizki ordainduta daude.
- Lan-merkatua nagusiki emakumeek uzten dute.

ADISKIDETZEA

- Lekunberriko Haur Eskolak, plaza kopuruari dagokionez, Lekunberriko eta zonaldeko eskaera betetzen duela dirudien arren, ordutegiak ez ditu betetzen, antza, familia aunitzen premiak, bereziki txandaka edo lanaldi zatituan lan egiten duten emakumeenak.
- Familia-sareak ezinbestekoak dira halakoak dituztenentzat, eta, oro har, haurren eta mendekotasunen bat duten pertsonen zaintza berriro ere beste emakume batzuen esku geratzen da (amak, amatxiak, izebak, ahizpak...).
- Lana, familia eta bizitza pertsonala adiskidetzeara arazo pertsonaltzat, eta emakumeen arazotzat jotzen da oraindik ere; izan, ordea, gizartearen afera da, eta berdinean eragin beharko lieke emakumeei eta gizonari, gizarteari oro har.
- Nagusiki emakumearen enplegua berraztertzen da haurrak egonda zein lan utziko den erabakitzeko. Oro har, emakumeek uzten dute beren lana.
- Emakumeek haurrak ekarrita kirola, aisia eta denbora libre baztertzen dute.

ERANTZUKIDETASUNA

- Diagnostikoaren arabera, bi sexuko kideez osatutako bikote gehienetan emakumeak hartzen ditu bere gain etxeko lanak eta haurrak eta/edo mendekotasuna duten pertsonen zaintza. Hala ere, gizonengan aldaketa txiki bat nabaritzen da, beraiek ere hasiak baitira lan horiez arduratzen.
- Oro har, erantzukidetasunaren arloan, gizonak teoria ikasia dute, baina oraindik ere ez diote zezenari adarretatik heldu, oraindik ere ez da lanen erantzukidetasuna ematen.

- Emakumeen lanaldiak haurren eta/edo mendekotasuna duten pertsonen zaintzaren baitan daude; gizonenak, ordea, ez. Gizonek, halako familia-kargarik gabe, errazago egoki daitezke lanaldietara.
- Gizonen erantzukidetasuna handiagoa izan ohi da emakumea etxetik kanpo lan egiten duen bikoteetan.
- Oraindik ere badiraute emakumeei zaintzailearen rola (zaintzaile hoberenak eta bakarrak) ematen dieten estereotipoek. Oraindik ere uste da emakumeek sortzez beretik berezkoa duen ezaugarria dela; horrenbestez, ez da lortu estereotipoak gainditzea.
- Udalerrian bada gizonik pentsatzen dutena "gizon asko beren seme-alaben hobereana galtzen ari direla", "seme-alabek ematen duten pozak ez duela parekorik", "gizonok ez dugula baloratzen, dirua irabaztearen gaineratik, gure seme-alabekin egoteak balio duena". Adierazitakoaren arabera, beraiei ere gustatuko litzaieke beren haurren heziketan eta zaintzan parte hartzea, baina askotan "emakumeek sartzen utzi behar digute".
- Zenbait gizonen iritziz, "ez da egia haurra negarrez hasten denean beti ama hurbiltzen zaioneko kontu hori... zuk zaintzen badituzu, zuregana jotzen dute... haur horrentzat, berdinak dira aita eta ama".

OSASUNA

- Lekunberriko emakumeen gaitzak nagusiki erreuma, artritisa eta artrosia dira.
- Familia-plangintzak oraindik ere emakumeen esku egoten jarraitzen du. Zerbitzuak informazioa, antisorgailuen erabilera, eta ernalketa eta ugalkortasun-tratamenduak ematen ditu, besteak beste. Horretaz guztiaz oraindik ere emakumeak arduratzen dira gehienetan.
- Diagnostikoan parte hartu zuten herritarrek baloraziorik txarrenea ginekologia-zerbitzuari eman zioten, eta gainera, beste zerbitzuekiko alde nabarmenarekin. Kexa nagusiak honako hauek dira: itxaron-zerrenda luzeak, joan-etorrietan (Etxarrira edo Altsasura) galtzen den denbora, garraio-zailtasunak ordutegiari eta maiztasunari dagokienez.
- Osasunari dagokionez, Lekunberriko emakumeen eskaera nagusia ginekologia eta emaginen zerbitzu ibiltari bat sortzea da.
- Emakumeek eskatzen dute emakume zaintzaileen osasunean (fisikoan nahiz psikologikoan) laguntzea. Eguneko Zentroa sortzea eta abian paratzea lasaitua eta laguntza handia dakarkie mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeei.

PARTE HARTZE SOZIALA

- Lekunberri emakumeak leku guztietan daudela dirudien arren, oraindik asko dira gizonek hartutako lekuak: politika, pilotalekua, ikastetxeetako jolaslekuak, ostatuak, erantzukizuneko postuak eta erabakiak hartzeko postuak.
- Lekunberriko emakumeak kultur guneetan eta boluntariotzako guneetan daude. Kultur jardueretan parte hartzen duten gehienak adin tarte guztietako emakumeak dira.
- Bai emakume gazteek, bai adinekoek ere uste dute gizarteak ez diela aintzat hartzen historikoki bete duten, eta oraindik ere betetzen duten eginkizuna eta egiten duten lana; haurrak zaintzea, pertsonak zaintzea, etxea gobernatzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako lanak... Orain arte bete dituzten espazioak gizartearen bistan egotea eskatzen dute.

PARTE HARTZE POLITIKOA

- Alderdi politikoak ez dira erakargarriak emakumeentzat; emakumeek ez duten denbora behar izaten dute, eta gizonezkoen egiturak dituzte oraindik ere.
- Gaur egun, udalean, alderdi politikoaren ordezkariak honela dago banatuta: % 77,8 gizonezkoak, % 22,2 emakumezkoak.

GENERO INDARKERIA

- Lekunberriko emakumeen eta gizonen iritziz, oraindik tolerantzia handia dago udalerrian tratu txarrarekiko eta tratu txar horiek ematen dituztenekiko.
- Oraindik ere genero-indarkeria aunitz gai pribatutzat eta banakakotzat jotzen da, eta ez herritar guztioi dagokigun arazo sozial eta politikotzat.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio zehatza falta da, gertakari horri aurre egiten lagun dezakeen informazioa.

GARRAIOA

- Garraioari balorazio kaxkarra ematen zaio. Garraio-maiztasuna txikia da; horrek gidabaimena eta norberak autoa izatera behartzen gaitu. Halakorik ez duten emakumeentzat garraioa afera larria bihurtzen da (ibilbideak, ordutegiak, maiztasuna, eta abar).

KIROLA

- Emakumeek gizonen baino askoz ere kirol gutxiago egiten dute.
- Gainera, emakumeek eta gizonen kirol desberdinak aukeratzen dituzte, eta emakumeek lehenago uzten dituzte bertan behera, batez ere lehiakoak badira.
- Emakumeek, oro har, haurrak izanda, bere aisia, kirola... alde batera uzten dute; ez, ordea, gizonenak.
- Gizonen kirola aisiatzat eta gozamenerako ekintzatzat hartzen dute; emakumeek, ordea, zaintzeko eta gorputza mantentzeko bide gisa ulertzen dute.

LEGE ESPARRUA

Azken urteotan, berdintasun erreala edo eraginkorra lortzera bideratutako legeak finkatzen ari dira. Lege-berdintasuna edo berdintasun formala hainbat lege-testuren bitartez bermatua dago, baina berdintasun erreala ez da oraindik lortu. Hori dela-eta, aurrera egiten eta legeak ematen jarraitu beharra dago.

Bide horretan garrantzi handikoak izan dira nazioarteko legeak (Nazio Batuak), Erkidegoko legeak (Europar Batasuna, Europako Kontseilua,...), estatukoak eta Nafarroakoak.

Alabaina, toki-administrazioak ere helburu horietan inplikatu beharra dauka; izan ere, toki-administrazioa da herritarrengandik hurbilen dagoena, eta, beraz, berdintasuna lantzeko egokiena.

Jarraian, berdintasunaren inguruan dagoen lege mordoak jaso dugu labur.

Europako lege-esparrua

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1922/2006/EB Araudia, 2006ko abenduaren 20koa, Genero Berdintasunerako Institutua sortzeko bidea ematen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1672/2006/EB erabakia, 2006ko urriaren 24koa, enplegurako eta gizarte-elkartasunerako Erkidegoaren programa, Progress, ezartzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 771/2006/EB Erabakia, 2006ko maiatzaren 17koa, guztientzako Aukera Berdintasunerako Europako Urtea (2007) ezartzen duena: Bidezko gizarte baterantz.
- Genero berdintasunaren aldeko Europako Ituna. Bruselako Europako Kontseilua, 2006ko martxoaren 23-24. Lehendakaritzaren ondorioak.
- BAT/2006/92. Batzordearen jakinarazpena Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan-egitasmoa 2006-2010, 2006ko martxoaren 1ekoa {SEC(2006) 275}.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EB Zuzentaraua, 2006ko uztailaren 5ekoa, enplegu eta lanbide aferetan gizonen eta emakumeen artean aukera berdintasuneko eta tratu-berdintasuneko printzipioa ezartzeari buruzkoa (testu bategina).

- Kontseiluaren 2004/113/EB Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, gizonen eta emakumeen ondasun eta zerbitzuetarako eta horien horniketakarako aukera bermatzeko tratu-berdintasuneko printzipioa ezartzen duena.

- Kontseiluaren 2003/C 260/03 Ebazpena, 2003ko urriaren 20koa, gizakien salerosketaren, bereziki emakumeen salerosketaren aurka borrokatzeko ekimenei buruzkoa.

- Kontseiluaren 2003/C 175/02 Ebazpena, 2003ko uztailaren 15ekoa, ezagutzaren gizaratean gizarte eta giza kapitala prestatzeari buruzkoa: ikaskuntza, lana, gizarate-kohesioa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EB Zuzentaraua, 2002ko irailaren 23koa, enplegurako, prestakuntzarako eta lanbidean aurreratzeko aukera izateko, eta lan-baldintzei dagokienean gizonen eta emakumeen artean tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzeari buruzko Kontseiluaren 76/207/EE Zuzentaraua aldatzen duena.

- Kontseiluaren 2008/78 Zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguak eta lanbidean tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa.

- Kontseiluaren 2000/43 EB Zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, arraza edo jatorri etnikoa gorabehera, pertsonen tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzeari buruzkoa.

- Kontseiluaren 2000/750/EB Erabakia, 2000ko azaroaren 27koa, diskriminazioaren aurka borroka egiteko gizarte-ekintzako programa bat (2001/2008) ezartzen duena.

- Kontseiluaren eta Lan eta Gizarte Gaietarako ministroen (2000ko ekainaren 29an Kontseiluan bilduak) 200/C 218/02 Ebazpena, gizonen eta emakumeen lanbide-jardueran eta familia-bizitzan parte-hartze orekatua izateari buruzkoa.

- 2000ko ekainaren 19ko Kontseiluaren 2000/407/EB Erabakia, Batzordeak sortutako lantaldeetan eta aditu-taldeetan parte hartzen duten gizonen eta emakumeen kopuru-orekari buruzkoa.

- 2000ko uztailaren 7ko Batzordearen 2000/C 203/03 Jakinarazpena Estatu kideei, Batzordeak sortutako lantaldeetan eta aditu-taldeetan parte hartzen duten gizonen eta emakumeen kopuru-orekaren inguruan Batzordeak hartutako erabakiari buruzkoa.

Estatuko lege-esparrua

- 39/1999 Legea, azaroaren 5koa, langileek familia eta lana uztartzea sustatze aldera.
- 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimen Babes-agindua arautzen duena.
- 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, herritarren segurtasunaren, etxeko indarkeriaren eta atzerritarren gizarteratzearen inguruko neurri zehatzei buruzkoa.
- 30/2003 Legea, urriaren 13koa, genero indarkeriaren balorazioa Gobernuak landuko dituen araudi-xedapenetan sartzeko neurriei buruzkoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren kontrako babes-neurri integralei buruzkoa.
 - 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako.
- 227/1986 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, emakumeak babestearen inguruko estatu-zerbitzuak transferitzen dituen. (aparteko NAO, 1986/2/12koa).
- 1251/2001 Errege Dekretua, familia eta lana uztartzeari buruzko Legearen zati bat garatzen duena.
- 233/2005 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, 2005eko programazioaren barnean, emakumeen gaineko indarkeria epaitzeko epaitegiak sortzea eta eratzea xedatzen duena. (BOE 65. zk, 2005eko martxoaren 17koa).
- 237/2005 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, emakumearen gaineko indarkeriaren kontrako Gobernu Ordezkaritza Bereziaren maila eta eginkizunak ezartzen dituen, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurri Integraleko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aurreikusita.
- 1452/2005 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurri Integraleko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoak arautzen dituen.

- Estatuko Segurtasunerako Idazkaritzaren 2005eko ekainaren 28ko Ebazpena, "etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren biktimak babesteko, segurtasun-indar eta kidegoen, eta organo judizialekiko koordinaziokoen jarduera-protokoloa" argitaratzea onartzen duena, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurri Integraleko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren printzipio orokorretara eta xedapenetara egokitua.

Foru Erkidegoko lege-esparrua

- Gizarte Zerbitzuei buruzko azaroaren 14ko 15/2006 Foru Legea, indarkeria pairatu duten biktimei laguntza osoa emateko, diziplina anitzeko esku-hartze taldeak sortzea jasotzen duena.

- Nafarroako Gobernuaren eta honen Presidentearen 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa (521. eta 53.2 artikulua). Sexu arrazoiengatiko inpaktuaren txostenak).

- Martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legea, sexu-indarkeriaren kontrako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzen duena.

- 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroako emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna sustatzeari buruzkoa.

- Uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, sexu-indarkeriaren kontrako neurri integralak hartzeari buruzkoa.

- 125/2007 Foru Dekretua, irailaren 3koa, Gizarte Gaietarako, Familia, Gazteria eta Kirola Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.

- 16/2007 Foru Dekretua, otsailaren 26koa, sexu-indarkeriaren kontrako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

- 90/2006 Foru Dekretua, abenduaren 18koa, "Nafarroako Berdintasunerako Institutua" erakunde autonomoa onartzen duena.

- 2006ko martxoaren 6ko Gobernu Akordioa, Nafarroako Foru Erkidegoko emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana onartzen duena.
- 127/1996 Foru Dekretua, martxoaren 4koa, Nafarroako Emakumeen Elkartearen Errolda erregulatzeko arauak ezartzen dituena.
- 177/1995 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, "Nafarroako emakumearen Institutua" erakunde autonomoa sortzeari buruzkoa.
- Gizarte Ongizate, Kirola eta Gazteria kontseilariaren 13/2005 Foru Agindua, otsailaren 7koa, emakumeek pairatzen dituzten tratu txarren arretarako eta prebentziorako Gizarte Baliabideen azterketa eta balorazioa egiteko Instituzioen arteko Azpibatzerdea sortzen duena.
- Lehendakaritza kontseilariaren 351/1996 Foru Agindua, Nafarroako Emakumearen Kontseiluaren osaketa eta funtzionamendua zehazten dituena.

PLANAREN EGITURA

Berdintasun Planak hamaika lan-arlo ditu, honako hauek:

1. Udal-administrazioa eta Udaleko Aukera Berdintasunerako Zerbitzua
2. Parte-hartze soziala eta politikoa
3. Hezkuntza, hezikidetza eta prestakuntza
4. Kultura eta euskara
5. Enplegua eta landa-garapena
6. Gazteria, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea
7. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
8. Elkar aditzea eta erantzukidetasuna
9. Immigrazioa
10. Lurraldearen antolamendua, etxebizitza eta garraioa
11. Emakumeen aurkako indarkeria

Planak lau urteko iraunaldia du, 2010etik 2013ra bitartekoa. Inplementazioa urteko lan-programa baten eta geroztiko ebaluazioaren bitartez egingen da.

Planaren lau urteak beteta, lortutako emaitzak eta helburuak lortu ezean aurrera begira azpimarratu beharreko puntuak bistaratuko dituen azken ebaluaketa egingen da.

GINARRI ESTRATEGIKOAK

Planaren erreferentzia-markoa da batetik Nafarroako Foru Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010), eta, bestetik, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Lege hori nahitaez aipatu beharreko lege-testu bihurtu da, Estatu-mailan lehena baita berdintasunaren arloan jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa ematen duena.

Erreferente dira, halaber, Nafarroako beste hainbat udalerritan landu diren berdintasun-planak.

Jarraian Plan honen oinarri estrategikoak jaso ditugu;

Ekintza positiboa izeneko kontzeptua Estatu Batuetan sortu zen 60ko hamarkadan, gobernuak desberdintasunei aurre egiteko abian paratutako estrategien barnean. Desberdintasun horiek nagusiki lan arlokoak ziren, eta hainbat taldek pairatzen zuten sexu, arraza, jatorri, erlijio... arrazoi tarteko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europako Kontseiluaren lantaldeak honela definitzen du kontzeptu hori: *"gizarte-jardunbidearen edo sistemen ondorio diren diskriminazioak gainditzea ahalbidetuko dituzten neurrien bitartez aukera-berdintasuna ezartzera bideratutako estrategiak"*.

Genero-zeharkakotasuna edo *mainstreaming* terminoak esan nahi du gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari buruzko afera guztiek zeharkakotasuna izan behar dutela politika eta ekintza guztietan, eta ez zaiola afera honi heldu behar soilik emakumearen aldeko zuzeneko eta berariazko ekintzen ikuspuntutik. (*"Genero-ikuspegia" Europako gida. Europako Carrefour-a*).

Berdintasuna zeharkakotasunean landu nahi da; alegia, arlo guztietatik, izan ere, berdintasuna ez dago beste gaietatik, kasu honetan udaletik, bakandurik. Berdintasuna ez dagokie "soilik emakumeei", anitzetan hala pentsatu bada ere. Berdintasuna gizarte osoari dagokio, emakumei eta gizonei, eta ezin bakan daiteke beste jardute-eremuetatik; kultura, hirigintza, osasuna... Berdintasunari zeharkakotasunez heldu behar zaio, eta ez gauza puntuala, gainerako udal politiketatik bakandurik dagoen zerbait balitz bezala.

Azken urteotan EBn genero-zeharkakotasuna aldarrikatu da EBren egituran berean zein Estatu kide bakoitzeko politika orokorretan gehitu beharreko ezinbesteko erreferentzia-esparru gisa. Genero-zeharkakotasunaren erreferentziak jaso dira araudi orokorretan (egitura-fondoen erregelamenduak, kasu), zein aukera-berdintasunari buruzko politiketan (Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Gizarte Ekintzako IV. Programa, 1996-2000).

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 15. artikulua arabera, "Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunerako printzipioak zeharkatasunaren arauz gauzatuko dira Herri Erakundeen jardura guztietan. Administrazio publikoek aktiboki txertatuko dute zeharkakotasuna araudi-xedapenak hartzen eta gauzatzen dituztenean, politika publikoen definizioan eta horien inguruko aurrekontuetan, arlo guztietan eta jardura guztien garapen bateratuan".

Planaren azken helburu estrategikoa **gizarte-partaidetza** da, demokrazia ororen ardatz eta hezurdura. Planaren asmoa da Lekunberriko emakumeen eta gizonen errealitatea aldatzea, eta, beraz, berebiziko garrantzia du herritarrek horretan parte hartzea. Lekunberriko emakumeek eta gizonek prozesu honetako aldaketaren eragile eta subjektu aktibo izan behar dute.

Gizartearen parte-hartzearen esparruan emakumeen ahalduntzea funtsezkoa izanen da. Kontzeptuak adierazten duen prozesuaren arabera, pertsonak beren gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzen dituzte gizarte-talde gisa, bizi dituzten egoeren aldaketa positiboak bultzatze aldera. Horrenbestez, politikan, kulturen, ekonomian... jarduteko moduei lotua dago. Horietan, subjektuek eta/edo bazterkeria pairatzen duten edo zapalduak dauden taldeek jarduteko ahalmena eta gizarte-ordezkaritzako ahalmena bereganatzen dute, beren eskabideak, ideiak, iritziak... nabarmentze aldera.

ESKU HARTZEKO ESPARRUAK

1. ESPARRUA UDAL ADMINISTRAZIOA ETA UDALEKO AUKERA BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA

1. helburua. Udalaren Berdintasunerako Zerbitzua finkatzea. Teknikarien bitartez, Berdintasunerako Planaren ekintzak bultzatu, koordinatu eta ebaluatuko dira.

1.1. ekintza. Lekunberriko I. Berdintasunerako Plana editatu, aurkeztu eta zabaldu.

1.2. ekintza. Berdintasunerako eragilearen irudia finkatu, berdintasunerako zerbitzuaren eta Lekunberriko Berdintasunerako I. planaren ekintza guztiak diseinatzeko, inplementatzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.

1.3. ekintza. Berdintasun-printzipioa udaleko politika guztietan txertatzea bultzatu.

1.4. ekintza. Berdintasunerako I. Plana garatzea bultzatu, urteko lan-egitasmoa landuz eta horren ebaluazioa eginez.

1.5. ekintza. Urtean ezarritako helburuen, estrategien eta abian paratutako ekintzen eta lortutako emaitzen ebaluazioa jasoko dituen urteko jardueren oroitza-txostena egin.

2. helburua. Genero-ikuspegia udaleko arlo guztietan txertatzea.

2.1. ekintza. Lekunberriko web orriaren barnean emakumearen eta berdintasunaren atal berezia sortu; horretan, udalak berak arlo horretan lantzen dituen ekintza guztiei buruzko informazioa jasoko da. Orri horretan planaren garapenari, proposatutako ekintzei, zerbitzuei eta beste entitateetako berdintasunerakundeei buruzko unean uneko informazioa emanen da.

2.2. ekintza. Gainerako udal-atalekiko lankidetzak-formulak ezarri: genero-ikuspegia barne hartuko duten programen plangintza, diseinu eta ebaluazio-bilerak.

2.3. ekintza. Eskualdeko, Foru Erkidegoko eta Estatuko Emakume/Berdintasun atalekin koordinazio-bideak finkatu, informazioa trukatzeko

eta, hala dagokionean, dagoeneko abian diren baliabideei etekina ateratzeko eta zerbitzuak, behar ez bada, ez bikoizteko.

2.4. ekintza. Udalaz gaindiko instituzioek egiten dituzten gomendioak ezartzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, eta, zehazki, Nafarroako Foru Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako I. Planak jasotzen dituen helburuak eta ekintzak kontuan hartzeko.

2.5. ekintza. Genero-ikuspegia izanen duten aurrekontuak bultzatu.

2.6. ekintza. Genero-inpaktua udaleko proiektu eta programa guztietan txertatzea.

3. helburua. Pertsonal-teknikariari informazioa ematea, horiek sentsibilizatzea eta prestatzea udal-politika guztietan, berdintasunaren eta zeharkakotasunaren arloan.

3.1. ekintza. Politikariak eta teknikariak prestatzea berdintasunaren kontuetan, genero-ikuspegia beren eguneroko eginkizunetan txerta dezaten arlo guztietan.

3.2. ekintza. Politikariei eta teknikariei tresnak ematea (materialak, jarduera onen gidak) genero-ikuspegia txertatzen joan daitezten.

4. helburua. Berdintasunaren arloan indarrean dagoen arautegia udalaren atal guztietan ezartzen dela bermatzea.

4.1. ekintza. Udalaren jardueran berdintasunaren eta ez diskriminazioaren printzipioa garatuko duen berdintasunezko legeria ezarri.

4.2. ekintza. Seme-alabak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko, udaleko langileen artean aitatasun-bajagatiko, eszedentziagatiko eta lizentziagatiko baimenak sustatu.

4.3. ekintza. Datuak biltzeko sistema instituzionala berraztertzea, estatistika guztiak, datu-base guztiak, inkesta guztiak... sexuen arabera bananduak egon daitezten, horien erabilpenaz zeharkako jarduera diskriminatzailerik egin ez dadin.

4.4. ekintza. Amei eta aitei ordutegi malgua ematea, 12 urtez beherako seme-alaben eta beren kargura dauden pertsona mendekoen zaintzarako.

4.5. ekintza. Udaleko ataletan (batez ere ebatzorganoetan) emakumezkoen eta gizonezkoen kopuru orekatua lortzeko neurriak ezartzea.

5. helburua. Udalean, administrazio-hizkeran eta publizitatean barne, egon litezkeen diskriminazioak errotik kentzea, eta udala aukera-berdintasunaren eredu bihurtzea.

5.1. ekintza. Genero-diskriminazioko egoeren aurrean esku-hartze eta jardute juridikoko baliabideak eta neurriak bultzatu eta ezarri.

5.2. ekintza. Lekunberriko udaletxean paratuta dagoen eta emakumeentzat diskriminatzailea izan daitekeen publizitate guztia kenduko dela bermatu.

5.3. ekintza. Publizitate-kanpainetako kontratazio-baldintzetan emakumeen irudi sexista edo diskriminatzailea egitea berariaz debekatuko duen klausula gehitu.

5.4. ekintza. Administrazio-dokumentuetatik, eskabideetatik, espedienteetatik eta udalak berak eginen duen publizitate guztitik hizkera sexista ezabatzea, bai euskaraz zein espainolez.

5.5. ekintza. Kontratazio-baldintzetan berdintasunarekin konpromisoa duten enpresei edo entitateei lehentasuna emanen dieten irizpideak sartu.

5.6. ekintza. Enpresa esleipendunetan arian-arian berdintasun-irizpideak sartzeko eta berdintasun-planak lantzea bultzatu.

2. ESPARRUA PARTE HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA

6. helburua. Emakumeek udalerraren bizitza sozial eta politikoan parte hartzeko bideak ezartzea, eta emakumeen ahalduntzea sustatzea.

6.1. ekintza. Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzeak duen garrantziari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egin.

6.2. ekintza. Lekunberriko Emakumearen Kontseilua/Berdintasunerako Kontseilua sortu. Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoko 78. artikulua adierazitakoaren arabera, Kontseiluaren funtsezko xedea izanen da *emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunerako printzipioa egiazki lortzeko, eta sexu-arrazoiengatik gertatzen den diskriminazioaren aurka borrokatzeko, emakumeek horretan parte hartzeko bide izatea*. Emakumeek erabakiak hartzeko aukera izan behar dute inplementazioa bultzatzeko, horren inguruan aholkatzeko eta inplementazioa kudeatzeko, eta Lekunberriko emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plana ebaluatzeko.

7. helburua. Berdintasunaren alde, emakumeen asoziazionismoa bultzatzea.

7.1. ekintza. Emakumeen elkarteek eta elkarte feministek gizartean duten garrantziari buruzko, eta berdintasuna lortzeko bidean emakumeek parte hartzeak duen garrantziari buruzko sentsibilizazio-kanpainak burutu.

7.2. ekintza. Itxaro emakume-taldearen eta Berdintasunerako Zerbitzuaren arteko harremanak indartu, eta horien lana bultzatu.

7.3. ekintza. Emakumeen topaketak eta elkarteak bultzatu, emakume-taldeen problematikak lantze aldera (minusbaliatuak, alargunak, etorkinak, lesbianak, familia-kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeak, eta abar).

7.4. ekintza. Berdintasuna lantzeko prestakuntza-ikastaroak edo tailerrak antolatu, Lekunberriko elkarteei zuzenduak.

7.5. ekintza. Berdintasunarekin lotura duten ikastaroak, tailerrak, zineforumak eta/edo hitzaldiak antolatu.

8. helburua. Balio feministak eta emakumeen ahalduntzea garatzea sustatu.

8.1. ekintza. Balio feministen eta ahalduntzearen inguruan hausnartzeko eta horiek zabaltzeko ikastaroak, eztabaidak, hitzaldiak eta tailerrak antolatu.

8.2. ekintza. Emakumeentzat eta berdintasunerako funtsezkoak diren datetan oroitzapenezko ekitaldiak bultzatu: martxoaren 8a, azaroaren 25a, eta abar.

3. ESPARRUA HEZKUNTZA, HEZIKIDETZA ETA PRESTAKUNTZA.

9. helburua. Eskola-elkartean hezikidetza lantzen jarraitu arian-arian, hezkuntza-eredu izan dadin.

9.1. ekintza. Hezkuntza-arloan hezikidetzari eta berdintasunari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak garatu, ikasleei, irakasleei eta guraso-elkarteei zuzenduak.

9.2. ekintza. Pertsona guztientzat aukera-berdintasuna eta ez diskriminatzeko printzipioa bultzatuko duten hezikidetzari buruzko tailerrak egiten jarraitu Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

9.3. ekintza. Hezikidetza arian-arian eskolan sartu, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren Berdintasunerako Plana (2009-2011) inplementatuz.

9.4. ekintza. Hezikidetzari buruzko materialak banatzea hezkuntza-eragile guztiei eta udal-liburutegian.

9.5. ekintza. Hezkuntza-arloko langileak eta gurasoak pertsonen garapen osoa eta berdintasunezkoa garatzeko, jolas, ipuin eta jostailu ez sexistak erabiltzeak duen garrantziaren eta premiaren inguruan sentsibilizatzea.

9.6. ekintza. Espazioaren erabileran eta edozein kirol nahiz jardueratan neska-mutilak egotea bultzatu.

9.7. ekintza. Irakasleen artean hizkera eta irudi ez sexistak erabiltzea bultzatu.

9.8. ekintza. Emakumeek historian zehar curriculumaren arlo guztietan izandako parte-hartzea eta egindako ekarpenak agerian jarri.

9.9. ekintza. Heziketa afektibo-sexual-emozional integrala, berdintasunezkoa eta heziketaren tarte guztietan erantzukidea bultzatu.

9.10. ekintza. Neska-mutilek etxean izan beharreko erantzukidetasunaren inguruan (etxeko lanak eta zainketak) sentsibilizazio-kanpainak egin irakasleekin eta gurasoekin.

9.11. ekintza. Irakasleen eta monitoreen artean eduki sexistekiko jarrera kritikoa bultzatu (testuak, hizkera, irudiak...).

10. helburua. Bere garaian hainbat arrazoi tarteko lan-merkatua bertan behera utzi zuten emakume helduak prestatzea.

10.1. ekintza. Orokorrean emakume gehiago dauden bitartekoetan eta lekuetan prestakuntza-eskaintzak egiten jarraitu, emakumeak horietan parte hartzera bultzatu, eta bereziki saiatu zailtasun soziolaboralak dituzten edo egoera ahulenean daudenekin.

10.2. ekintza. Helduen hezkuntzan oinarrizko ikasketak sustatu, bereziki egoera ahulenean dauden emakumeen artean.

4. ESPARRUA KULTURA ETA EUSKARA

11. helburua. Lekunberriko emakumeek egin duten eta oraindik ere egiten duten kultur ekarpena eta produkzioa (arte, zientzia, literatura, historia...) agerian jarri eta zabaldu.

11.1. ekintza. Emakumeek kulturaren izandako parte-hartzeari eta egindako ekarpenei buruzko azterketak eta argitalpenak egitea bultzatu.

11.2. ekintza. Emakumeei herriko kultur jardueran parte hartzeko aukera emanen dieten guneak (ikastaroak, aretoak, teknologiak...) bultzatu eta ezagutzera eman.

11.3. ekintza. Emakumeek herriaren garapenari eta hazkunderari egindako ekarpenaren aintzatespen publikoa bultzatu.

12. helburua. **Berdintasun- eta genero-irizpideak kontuan hartuko dituen kultur politika bultzatzea.**

12.1. ekintza. Aukera-berdintasunaren inguruan (kultur kudeaketa ez sexista, genero-ikuspegia izanen duten aurrekontuak, hizkera ez sexista euskaraz eta espainolez, eta abar) kultur arloan lan egiten duten pertsonen prestakuntza bultzatzen jarraitu.

12.2. ekintza. Liburutegia generoarekin eta berdintasunarekin lotura duten gaiak landuko dituzten materialekin hornitzen jarraitu (hezikidetzak, emakumeek kulturari egindako ekarpena, artea eta emakumeak, eta abar). Aipatu materiala herritar guztiei zuzenduta egonen da, eta, zehazki, neska-mutilei (ipuin eta jolas ez sexistak, eta abar). Halaber, eskaintza osatze aldera, gaur egun dauden materialak berrikusi.

12.3. ekintza. Emakumeak protagonista izanen dituzten kultur jarduerak diseinatu, kultur eredu berriak sortu, eta horiek herritarren artean agerian jartzeko.

13. helburua. **Arlo hauetatik lantzen diren programetan, hizkeran, publizitatean... egon daitezkeen diskriminazioak ezabatu.**

13.1. ekintza. Arlo horietatik lantzen diren materialetan egon daitezkeen hizkera, irudi eta/edo publizitate sexista berraztertu eta zuzendu.

14. helburua. **Albait pertsona gehieni kultur jardueretan parte hartzea erraztea (ikastaroak, tailerrak, antzerkia, eta abar), eta herritarrek horietan parte ez hartzeko egon daitezkeen arrazoiak aztertzea eta zuzentzea.**

14.1. ekintza. Udalak antolatzen dituen kultur ekitaldietan haurtzaindegi- edo ludoteka-zerbitzua ematen jarraitu.

14.2. ekintza. Ekintzak zein ordutegitan antolatzen diren berraztertu, ordutegia eragozpena izan ez dadin ekintza horietan parte hartzeko.

15. helburua. Genero-ikuspegia sartzea euskararen transmisioan eta erabileran.

15.1. ekintza. Emakumeek euskararen transmisioan izan duten garrantzia agerian jarri eta aitortu.

15.2. ekintza. Plana abian paratzeko aurreikusten diren ekintza eta jarduera guztietan euskararen erabilera bermatu.

15.3. ekintza. Berdintasunaren arloan eginen den lanean pertsona bakoitzak bere ama hizkuntzan hitz egin ahal izatea bultzatu.

15.4. ekintza. Euskararen erabilera ez sexista bultzatu.

5. ESPARRUA ENPLEGUA ETA LANDA GARAPENA

16. helburua. Emakumeek ekonomiari eta gizarte-ongizateari historian zehar egin dieten eta gaur egun ere egiten duten ekarpena agerian jartzea eta zabaltzea.

16.1. ekintza. Protagonista emakume langileak (nekezariak, abeltzainak, etxeko andreak, eta abar) izanen dituzten, eta emakumeek gizarte osoaren ekonomiari eta ongizateari egindako ekarpenaren berri emanen duten hitzaldiak eta erakusketak antolatu.

16.2. ekintza. Enpleguaren eta prestakuntzaren inguruan eginen diren jardueretan emakumeek parte hartzea bultzatu.

17. helburua. Emakumeen lan-egoera agerian jartzea.

17.1. ekintza. Emakumeek lan-merkatuarekiko duten egoeraren azterketa edo analisi zehatza egin, eta arreta berezia eman zonaldeko berezitasunei eta landa-enpleguei.

17.2. ekintza. Azterketa horretan lortutako emaitzen berri eman herritarrei.

18. helburua. Emakumeentzako enplegu- eta lan-promoziorako sarbidea erraztea.

18.1. ekintza. Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 5., 6., 7. eta 8. artikuluek betetzea eskatu Lekunberrin finkatutako enpresei. Aipatu artikuluek honako hau diote: "*Tratu- eta aukera-berdintasuna enplegurako, prestakuntzan eta lanbide aurreratzeetan, eta lan-baldintzetan*", "*zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioa*", "*sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena*" eta "*haurdunaldiagatiko nahiz amatasunagatiko diskriminazioa*".

18.2. ekintza. Udalak udalerrian dauden enpresetan legeak xedatutakoa betetzen denaren jarraipena egin.

18.3. ekintza. Gaur egun dauden enpresei, eta aurrera begira egon daitezkeenei berdintasuna bermatzeko ekintza-neurri positiboak exijitu (laneko promozioa, ebatzorganoetan presentzia orekatua, eta abar).

18.4. ekintza. Gaur egun emakumeak kontratatzeaz, laneko eskubideez, adiskidetzeez, baimenez, berdintasun-planez... dagoen informazioa eta arautegia zabaldu enpresetan eta enpresaburuen artean.

18.5. ekintza. Enpresak bultzatu eta aholkua eman, berdintasun-planak lan ditzaten.

18.6. ekintza. Baliabideak eta Nafarroako Gobernuak landagarapenaren inguruan dauden laguntzei buruzko informazioa eman.

18.7. ekintza. Etxeko langileak kontratatzen dituztenei langile horiek dituzten eskubideen inguruko aholkua eman (Gizarte Segurantzaren alta ematea, opor-egunetarako eskubidea, eta abar).

18.8. ekintza. Emakumeak lan-munduan sartzea, eta lana eta familia uztartzea bultzatzera bideratutako proiektuak, Europako ekimenetan kokatuak, garatu.

18.9. ekintza. Emakumeei autoenplegurako proiektuak lantzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa ematen jarraitu, baita enpresak sortzeko lehen urratsetan lagundu ere (diru-laguntzak, izapideak, eta abar).

18.10. ekintza. Autoenpleguari,, enpresa-kudeaketari, enpresa-hobieiei... buruzko prestakuntza-ekintzak lantzen jarraitu.

6. ESPARRUA GAZTERIA, JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA, AISIA ETA DENBORA LIBREA

19. helburua. Genero-ikuspegia kirolaren kudeaketan eta kirol-jardunean sartzan jarraitu.

19.1. ekintza. Kirol-arloko langileak (monitoreak, entrenatzaileak, eta abar) prestatu genero ikuspegiari, eta kirola berdintasunean egiteari dagokionean (sexismoa eta kirol-eskaintza estereotipatuak baztertu, ...).

19.2. ekintza. Adin guztietako emakumeek kirola egin dezaten bultzatu, aisiarako eta osasunerako.

19.3. ekintza. Emakumezkoen taldeak eta talde mistoak sortzea bultzatu.

19.4. ekintza. Emakumeen eta neskatxen presentzia txikia den kirolean emakumeen eta neskatxen parte-hartzea bultzatu (pilota, txirrindularitza, eta abar).

19.5. ekintza. Gizonen eta mutikoen presentzia txikia den kirolean gizonen eta mutikoen parte-hartzea bultzatu (aerobic, dantza, eta abar).

19.6. ekintza. Kirol-arloan erabakiak hartzeko organoetan emakumezkoen presentzia bultzatu (taldeetako zuzendariak, epaileak, eta abar).

19.7. ekintza. Kirolerako balio berriak bultzatu; ez lehiakorrak, eta pertsona guztien gaitasunak garatzera bideratuagoak.

19.8. ekintza. Herriko emakumezko kirolarien artean, jokalaria izatetik entrenatzaile izatera pasatzea bultzatu.

19.9. ekintza. Hedabideetan emakumeak kirola egiten ikusi, emakumeek erreferente izanen diren emakumezko ereduak izan ditzaten.

20. helburua. Kirol-arloan egon daitekeen publizitate eta hizkera sexista ezabatu.

20.1. ekintza. Arloak landuko dituen materialetan (kartelak, liburuxkak, katalogoak, eta abar) publizitate, hizkera edo eduki sexistak ez erabiltzea bermatu.

21. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea emakumeek eta gizonek aisiaz eta denbora libreaz gozatzeko, eta hori hala izatea errazteko duten eskubidearen inguruan.

21.1. ekintza. Denbora berezitua erabiltzeari buruzko, eta pertsona guztiek aisialdiaz gozatzeko duen garrantziari eta premiari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egin; ulertuz, pertsonaren orekarako eta garapen integralerako mesedegarria dela.

21.2. ekintza. Emakumeei aisialdiaz gozatzeko erraztuko dieten baliabideak eman.

22. helburua. Gazteen premiak eta eskaerak ezagutzea bultzatu.

22.1. ekintza. Gazteen eskaerak eta premiak agerian jarriko dituen azterlan zehatza egin.

22.2. ekintza. Azterlan horren emaitzaren berri eman, eta herritarrak sentsibilizatu gazteen premien inguruan.

22.3. ekintza. Gazteekin elkarlanean lan-egitasmo bat sortu, gazteen eskaerekin eta interesekin bat etorriko dena.

22.4. ekintza. Emaitza horiek Gizarte Etxearen erabileran, helburuetan eta proiektuan aplikatu.

22.5. ekintza. Gazteen artean elkarteak sortzea bultzatu.

22.6. ekintza. Alokairuko pisu merkeak bultzatu, gazteei zuzenduak.

7. ESPARRUA OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

23. helburua. Genero-ikuspegia izanen duen Gizarte Zerbitzuen politika garatzea.

23.1. ekintza. Gizarte Zerbitzuetako langile guztiak prestatu berdintasunean eta genero-ikuspegian.

23.2. ekintza. Gizarte Zerbitzuek diseinatu eta planifikatzen dituzten programa guztietan genero-ikuspuntua txertatu.

23.3. ekintza. Genero-ikuspegia txertatu Eguneko Zentroa eraikitzeko proiektuan.

23.4. ekintza. Emakume zaintzaileei zuzendutako topaleku bat sortzea bultzatu, arreta berezia emanez zainketa-lanak bere osotasunean beren gain hartzen dituzten eta bakarrik dauden emakumeei.

23.5. ekintza. Gizarte-egoera bereziki zailean dauden emakumeei zuzendutako hainbat udal-baliabide eta zerbitzuetarako aukeran ekintza positiboak edo lehentasunezko irizpideak inplementatu. Aipatu egoera zail horren barnean daude emakumezko langabetuak, familia-kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeak, emakumezko etorkinak, emakumezko minusbaliatuak, eta abar.

24. helburua. Lekunberriko emakume guztien bizi-kalitatea eta laguntza sozio-sanitarioa bermatzea.

24.1. ekintza. Adin desberdinetako emakumeen artean bizimodu osasuntsurako ohiturak bultzatzeko sentsibilizazio-kanpaina egin.

24.2. ekintza. Osasun-heziketarako ikastaroak eskaini: erretzeari uzteko laguntza, antsietatearen kontrola, hazte pertsonala, diabetea, hipertentsioa, helduz joatearen plazerra, eta abar.

24.3. ekintza. Mendekotasuna duten pertsonen zainketari dagokionez, familiako kideen artean bidezko banaketa egin beharraz sentsibilizazio-kanpainak landu.

24.4. ekintza. Ginekologia Zerbitzua hobetzeko edo hurbiltzeko egon daitezkeen bideak bilatu.

24.5. ekintza. Nahi ez diren haurdunaldiak eta sexu-harreman bidezko gaixotasunak saihesteko prebentzio-kanpainak egin, eta metodo antisorgailuen erabileran egon behar duen erantzukidetasuna azpimarratu.

24.6. ekintza. Pertsonal sanitarioa sentsibilizatu egon daitezkeen genero-indarkeriako kasuak antzeman ditzaten.

24.7. ekintza. Genero-indarkeriaren inguruan Nafarroako Gobernuak landu zuen Jarduera Integraleko Protokoloa betetzen dela bermatu.

24.8. ekintza. Emakumeari laguntzen zentroyen (ELZ) zerbitzuak ezagutzera eman; gazteriarri arreta berezia eskainiz.

8. ESPARRUA ADISKIDETZEA ETA ERANTZUKIDETASUNA

25. helburua. Enpresaburuak sentsibilizatu berdintasunaren, eta lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzearen inguruan.

25.1. ekintza. Enpresei adiskidetzearen arloan dauden araei eta laguntza eskuragarri buruzko, eta neurri horiek hartzeak enpresei eta langile guztiei dakartzkien onurei buruzko informazioa eta aholkuak eman.

26. helburua. Lekunberriko herritarren lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea bultzatzea.

26.1. ekintza. Haur Hezkuntzako Udal Eskolaren leku-kopurua areagotuz joan, eskolan sartzea eskatu duten 0 eta 3 urte bitarteko haur guztiak hartu ahal izateko.

26.2. ekintza. Haur Hezkuntzako Udal Eskolaren ordutegia berraztertuz joan, erabiltzaileen eskaerei erreparatuz.

26.3. ekintza. Udala eta gizarte-eragileak inplikatu familia-erantzukizunetan gizonak eta emakumeak duten erantzukidetasuna bultzatzea.

26.4. ekintza. Gehienbat emakumeak erabiltzen dituzten baimenak, lanaldi-murrizpenak edo beste edozein adiskidetze-neurri gizonak ere hartzea bultzatu.

26.5. ekintza. Udaleko atalek antolatutako programak garatzen diren bitartean ludoteka-zerbitzuak gehitu.

26.6. ekintza. Berdintasunezko denboren erabilpenari, eta etxeko lanak eta mendekotasuna duten pertsonen zainketa banatu beharri buruzko sentsibilizazio-kanpainak egin.

26.7. ekintza. Ikasleekin sentsibilizazio-tailerrak egin, erantzukidetasuna eta denboraren erabilera lantze aldera.

26.8. ekintza. Lanen eta denboren banaketari buruzko sentsibilizazio-kanpaina egin, Lekunberriko gizonak zuzendua.

9. ESPARRUA IMMIGRAZIOA

27. helburua. Emakume etorkinen egoera hobetzea.

27.1. ekintza. Lekunberrin emakume etorkinek duten egoerari buruzko azterlana egin.

27.2. ekintza. Azterlanean jasotako emaitzetan oinarrituta, aurrera begirako jardueren plangintza egin (gidak, txostenak, eta abar).

27.3. ekintza. Udalaren proiektuetan, azterlanetan, ikerketetan... "etorkin" aldagaia sistematikoki kontuan hartu beharreko aldagaitzak hartzea.

28. helburua. Emakume etorkinek Lekunberriko bititza sozialean, kulturean eta politikoan parte har dezaten bultzatzea.

28.1. ekintza. Lekunberrin kultura desberdinetako emakumeen arteko topalekuak bultzatu, eta zonaldeko beste udalerrietako emakumeekiko harremana bultzatu.

28.2. ekintza. Emakume etorkinek Berdintasun Plana garatzen parte hartzea bultzatu.

28.4. ekintza. Baliabide-gida bat diseinatu, hainbat hizkuntzatan.

28.5. ekintza. Etorkinei zuzenduta, euskara eta gaztelania ikastaroak bultzatu.

28.6. ekintza. Udalerrian antolatuko diren ekintzetan etorkinen parte-hartzea bultzatu, batez ere, emakume etorkinena.

10. ESPARRUA LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA

29. helburua. Lekunberriren hirigintza-garapenean genero-ikuspegia txertatzea.

29.1. ekintza. Herriko kaleetan, plazetan... emakumezko nomenklaturak proposatu, herriaren hirigintza-garapenean emakumeak ager daitezen.

29.2. ekintza. Emakumeei etxebizitza erosteko edo alokatzeko aukera emanen dieten hirigintza-politikak bultzatu.

29.3. ekintza. Pertsoneri udalerriko hiribideetan barrena ibiltzea oztopatzen dieten traba arkitektonikoak arian-arian kentzeko konpromisoa hartu.

29.4. ekintza. Herriko gune publikoetan segurtasun eza sortzen duten faktoreak arian-arian ezabatzea bultzatu. Horretarako:

-Herriko argiak hobetuko dira.

-Traba arkitektonikoak eta zoru irristakorrak kenduko dira.

-Bideko seinaleak eta zerbitzu eta instalazio erabilieneren seinaleak hobetuko dira.

29.5. ekintza. Lekunberrin bizi diren emakumeek hiri-eremu berriak diseinatzeko proposamenak lantzen parte har dezaten bultzatu.

30. helburua. Kalitateko garraio publikoa bultzatzea.

30.1. ekintza. Biztanle-sektoreek (etorkinak, gazteria, eta abar) garraio publikoarekiko eta mugikortasunarekiko dituzten premiak aztertu.

30.2. ekintza. Garraio publikoa arian-arian emakumeek eta aipatutako kolektiboek proposatuko dituzten premietara egokitzea bultzatu: Orduategia, maiztasuna,, ibilbidea, eta abar.

31. helburua. Emakumeen premietara egokituko diren etxebizitzaren inguruko politikak lantzea.

31.1. ekintza. Herritarren etxebizitzarekiko eskaerak aztertu, eta gazteen eta emakumeen eskaerei arreta berezia eman.

31.2. ekintza. Etxebizitzaren inguruko politikak aztertutako eskaeretara, eta familia-guneez izan ditzaketen errealitate berrietara egokitu: bakarrik bizi diren emakumeak, guraso bakarreko familiak, eta abar.

11. ESPARRUA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

32. helburua. Genero-indarkeriaren prebentzio-politika bultzatzea.

32.1. ekintza. Azaroaren 25a Indarkeria Sexistaren aurkako Nazioarteko Egun gisa ospatu, gizarteak pairatzen duen arazo larri honen inguruan herritar guztiak sentsibilizatzeko aldera.

32.2. ekintza. Eskola-curriculumaren barnean emakumeen aurkako indarkeriaren zergatiari, indarkeria hori zein modutan agertzen den, mito ustelei eta estereotipoei, ondorioei... buruzko berariazko kanpainak edo modulu teoriko-praktikoak egin.

32.3. ekintza. Biztanle-sektoretara zuzendutako sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak burutu, emakumeek pairatzen duten indarkeria agerian jartze aldera.

33. helburua. Genero-indarkeria pairatzen duten emakume guztiei laguntza osoa eta kalitatekoa bermatzea.

33.1. ekintza. Lekunberrin genero-indarkeriagatik heriotzaren bat gertatuz gero, udala akusazio partikular gisa agertu.

33.2. ekintza. Genero-indarkeria gertatzen denean, egoera horren ondorioetan parte hartzen duen pertsonal sozio-sanitarioa eta, oro har, pertsonal guztia prestatu halako kasuen prebentzioan, antzematen eta kudeatzen.

33.3. ekintza. Genero-indarkeria kasuetarako indarrean dauden autonomia-erkidegoko jarduera-protokoloak zabaldu, batez ere, emakumeak dauden guneeetan. Genero-indarkeriari buruzko foru-legea, laguntza-baliabideak, prozedura juridikoak, prozedura sozio-sanitarioak... ezagutzera eman.

33.4. ekintza. Nafarroan dagoeneko indarrean dauden jarduera-protokoloak ezartzeko konpromisoa hartu. Herrira egokituko den jarduera-protokoloa hartu, foru-erkidegoan dagoenarekin bat etorriko dena; aipatu hau etxean tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeei laguntzeko Instituzioen arteko Akordioan (Nafarroako Gobernuak landua) oinarrituko da.

33.5. ekintza. Tratu txarrak pairatu dituzten emakumeek hainbat baliabidetarako (enplegua eta udal-etxebizitzak, kasu) izan beharreko lehentasunak finkatu.

33.6. ekintza. Nerabeen eta gazteen artean egon daitekeen genero-indarkeria antzematea ahalbidetuko duten tresnak sortu.

33.7. ekintza. Indarkeriari buruzko informazio guztia (sexuaren eta adinaren arabera banandua) bildu polizia-etxeetan, anbulatorioan...

33.8. ekintza. Genero-indarkeriako kasuetan lanean diharduten profesionalak koordinatu, biktimari prozesu osoa errazte aldera.

INPLEMENTAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Planaren inplementazioa 2010. urtetik aitzina egingen da, eta urtero epealdi bakoitzean landuko diren ekintzak eta jarduerak programatuko dira.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko, hainbat fitxa prestatu dira honako atal hauen inguruan:

- Jarduera
- Helburua
- Edukiak
- Populazio hartzailea
- Entitate/Erakunde arduraduna
- Aurrekontua
- Egutegia
- Ebaluazio-adierazleak (kuantitatiboak eta kualitatiboak)

Ebaluazioa Plana, honen ekintzak praktikara eramatearen balorazioa da. Emaizak hasiera batean finkatutako helburuekin bat datozen ala ez ikusteko aukera emanen digu. Gainera, emaitza positiboa bada, bat etortze hori zenbatekoa den ikusteko aukera emanen digu. Emaizak helburuetatik urruntzen badira, ebaluazioaren bitartez jakinen dugu zer zuzendu, zein esparrutan eta ekintzatan sakondu behar dugun, eta aurrera begira zein estrategia berri landu behar ditugun.

Ebaluazioa urtero egin behar da, baita planak iraunen duen lau urteen bukaeran ere.

Ebaluazioa egiteko, hainbat adierazle finkatuko dira, eta kuantitatiboak eta kualitatiboak izanen dira. Nola nahi ere, honako alderdiok hartuko dira kontuan:

- Eragina: garatutako ekintzek errealitatea aldatu duten erakutsiko digu; alegia, hasierako uneetan agerian zeuden genero-desberdintasunak ezabatzen laguntzen duten.
- Eraginkortasuna: helburuak zein mailatan bete diren erakutsiko digu.
- Eragimena: aurrekontua eta eskuartean izandako baliabideak kontuan hartuta, emaitzak zein mailatan bete diren erakutsiko digu.

- Gogobetetasuna: modu batera edo bestera proposatutako ekintzetan parte hartu duten sektoreen (herritarrak, elkarteak...) gogobetetasun-maila erakutsiko digu.

Halaber, ekintzak landu ondoren, inkestak pasatzea aurreikusten da, ondorengo fitxen osagarri:

LIBURUXKAK, TRIPTIKOAK, DEKALOGOAK... EBALUATZEKO FITXA	
Helburuak	
Edukiak	
Kopia kopurua	
Populazio hartzailea	
Erakunde arduraduna(k)	
Egutegia	
Aurrekontua	
Balorazioa: - gogobetetasun-maila - baliagarritasun-maila	

UDALEKO LANGILE TEKNIKARI ETA POLITIKOEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROETARAKO EBALUAZIO FITXA	
Ikastaro-kopurua	
Iraupena (orduak)	
Zenbat emakumek eta gizonek hartu duten parte	
Zenbat arlok jaso duten prestakuntza	
Zenbat hizlari	
Egutegia	
Ikastaroa zein ordutan eman den	
Aurrekontua	
Balorazioa: -gogobetetasun-maila -baliagarritasun-maila -zein mailatan aplikatu daitezkeen lanpostu bakoitzean	

TAILERRAK, HITZALDIAK... EBALUATZEKO FITXA	
Helburuak	
Edukiak	
Zenbat emakumek eta gizonek hartu duten parte	
Jarduera garatu aurreko informazioa	
Egutegia	
Aurrekontua	
Iraupena	
Ordutegia	
Erakunde arduraduna(k)	
Balorazioa: -gogobetetasun-maila -gaiak zenbateko interesa piztu duen	

FUNTSEZKO KONTZEPTUEN DEFINIZIOA

Tratu eta aukera berdintasuna

Berdintasunerako Legearen 3. artikulua arabera, gizonen eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa ondorengoa da: sexu arrazoiengatik zuzeneko edo zeharkako inolako bereizkeriarik ez egotea, batez ere, amatasunagatik, familia betebeharrak gain hartzeagatik edo egoera zibilarengatik.

Ikus Berdintasunerako Legearen 6. artikulua (zuzeneko edo zeharkako bereizkeria), 7. artikulua (sexu-jazarpena eta sexua dela eta jazarpena pairatzea), 8. artikulua (haurdunaldia edo amatasunagatik bereizkeria) eta 9. artikulua (errepresalien aurreko ukigabetasuna), lege-testu horretako 3. artikuluan aipatzen diren bereizkeria ustezkoak zehazten dituztenak.

Zeharkakotasuna edo mainstreaming-a

“Mainstreaming” politikak esan nahi du politika eta ekintza guztietan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunarekin lotutako gaiak zeharka gogoan hartu behar direla. Eta ez zaio gai honi emakumearen aldeko zuzeneko eta berezitako ekintzen ikuspegitik ekin behar. (*Genero-ikuspegia Europako Gida. Europako Carrefour*).

Politika orokorretako ardatz nagusietan berdintasunerako politika zehatzak txertatzeko erabiltzen den termino anglosaxoa da.

Azken urteotan Europar Batasunean mainstreaming-a beharrezko erreferentzia marko gisa aldarrikatu da, bai EBaren egitura-ekintzaren barnean zein estatu kide bakoitzaren politika orokorretan ere. Mainstreaming-aren erreferentziak arau orokorretan, adibidez, Egitura Funtzen Araudietan, zein aukera berdintasunarekin lotutako politiketan ere jasotzen dira (Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Erkidego Ekintzako IV. Programa 1996-2000).

Berdintasunerako Legearen 15. artikulua arabera, emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasunerako printzipioak, zeharka, botere publiko guztien jardueraren berri emango du. Administrazio Publikoek beren arauen xedapenak hartzean eta betetzean, definizioan, arlo guztietako politika publikoen aurrekontuak egitean eta beren ekintzen garapenaren osotasunean aktiboki txertatuko dituzte.

Ahalduntzea edo empowerment-a

Beijing-en (Txinan) egin zen Emakumeen mundu-konferentzian sortutako terminoa da eta erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea hartzean emakumeen parte-hartzea handitzeari erreferentzia egiten dio. Egun, adierazpen horrek bestelako dimentsiorik ere badakar: emakumeek bakarka eta

taldean duten botereaz jabetzearekin eta emakumeek pertsona gisa duten berezko duintasuna berreskuratzearekin lotuta dagoena. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*)

Ingeleseko «empowerment» hitzaren itzulpena: Gizarte talde gisa pertsonak beren gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzeko prozesua, bizi dituzten egoeratan aldaketa positiboak bultzatu ahal izateko. Beraz, baztertutako edo zapal dutako pertsonak edota kolektiboek gizartean jarduteko eta ordezkatuak izateko boterea hartzeari buruz eta beren aldarrikapenak ikustarazteko politikoki, kulturalki, ekonomikoki, etab. jarduteko moduei buruz ari da.

Generoaren eraginaren txostena

Berdintasunerako Legearen 19. artikulua araber, Ministro Kontseiluan onartuko diren xedapen orokorreko proiektuek eta ekonomia, kultura eta gizarte garrantzia edo garrantzia artistiko berezia duten planek generoaren eraginaren txostena atxiki beharko dute.

Ordezkaritza parekatua

Berdintasunerako Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarriaren araber, emakumeen eta gizonen osaketa orekatutzat hartuko da multzo batean sexu bateko pertsona taldea ehuneko hirurogeita hamarra baino gehiago edo ehuneko berrogeia baino gutxiago ez denean.

Ekintza positiboa

60. hamarkadan Ameriketako Estatu Batuetan sortutako kontzeptua da, batez ere lanean sexua, arraza, jatorria, erlijioa, etab. dela eta hainbat kolektibok jasaten zituzten desberdintasunei aurre egiteko estrategia gisa. Europako Kontseiluko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Batzordeak kontzeptu hau honela definitzen du: “Aukera berdintasuna ezartzeko bideratutako estrategiak dira, gizarte praktiken edo sistemen ondorio diren bereizkeriak zuzendu edo alderatzeko aukera emango duten neurriek bideratuta”.

Alfonso Ruiz Miguelen ikuspegitik alderantzizko bereizkeria deritzon bereizkeria positiboa “berdintasunerako desberdintze modua da”. Alderantzizko hitza aukeratu du horrek “aurretik zegoen bereizkeriaren alderantzizkatzeari, kontrako zeinuaren bidezko bereizkeriari” erreferentzia egiten diolako. Gainera, alderantzizko bereizkeria edo bereizkeria positiboa ekintza positibo edo baiezko ekintzatik bereizten ditu. Bere esanetan, azken horiek “ez dira hain neurri zorrotz eta erradikalak, ez behintzat izaera diskriminatzailea duten (eta ez desberdintzekoak direnak soilik) eta gainera gabezia bereziko egoeretan beste pertsonen kalterako ematen direnak bezalakoak (...).” (*Berdintasunerako Hitzak.*

Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)

Berdintasunerako Legearen 11. artikulua araberan, gizonen aurrean izateko ageriko desberdintasun egoerak zuzentzeko emakumeen aldeko neurri zehatzak dira. Neurri horiek, egoera horiek dirauten bitartean aplikagarriak izango direnak, egoera bakoitzean bilatzen den helburuarekin arrazoizkoak eta proportziozkoak izan beharko dute.

Sexu-jazarpena

Jazarpena pairatzen duen pertsonak nahi eta onartzen ez duen hitzezko portaera sexuala edota portaera sexual fisikoa da, eguneroko bizitzaren espazio ezberdinetan gertatzen dena eta nagusitasun edo adiskidetasun egoeraz baliatuta, inguruko egoeran eragina duena eta beldurra sortu eta umiliatzen dutenak. Sexu jazarpena gizonak emakumeengan gauzatzen duten boterearen beste adierazle bat da. *(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)*

Andozentrismoa

Jakintza eta teoriaren ikuspegitik, munduaren eta gauzen ikuspuntua. Gizonak erdigunea dira eta horien guztien neurria. Beste guztia ikusezin bihurtzen dute, horien artean emakumeek gizartean egin ditzaketan ekarpenak. Ikuspegi andozentrikoak aurrez suposatzen du gizonen esperientzia "unibertsala" dela, garrantzitsuena, gizon-emakumeen erreferentzia edo ordezkartza, emakumeak alde batera utzita. *(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)*

Hezikidetzak

Hezkuntza esku-hartzerako metodoa, hezkuntza mistotik harago doana. Oinarria, sexua dena dela ere, neska eta mutilen gaitasun eta banakotasunak onartzean datza. Hezikidetzak, beraz, pertsonak balioen berdintasunean heztean datza. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legeak (LOGSE) oinarri arauemaile gisa sexuarengatik bereizkeria eza ezartzen du eta hezkuntza oinarri gisa sexuen arteko berdintasunerako heziketa eta bereizkeria era guztiei uko egiten die. *(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)*

Lanaldi bikoitza

Emakumeek egin behar izaten dutena, hau da, lan ordutegian ordaindutako lanaz gain, ugaltze lanak beren gain dituen zereginak (bikotearen laguntzarik gabe). *(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)*

Etxeko espazioa

Ugaltze-esparruarekin identifikatzen da, "lanik ezaren" espazioarekin. Horietan, menpeko pertsonen zaintza, babesak eta maitasuna barne hartzen dira, hau da, behar pertsonalak betetzen dituen espazioa da. Espazio horretan, tradizioz, emakumeak egon dira. *(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko*

Espazio pribatua

Liburutegia.) “Edukiak” testuan adierazten den zentzuan ulertu behar da.

Beste pertsoneri ematen ez zaien berezko espazioa eta denbora da, norberarentzat gordetzen dena, etxetik edo espazio publikotik kanpo dagoena. Espazio horretan pertsonak beren buruak zaindu eta lantzen dituzte, ondoren esparru publikoan proiektatzeko.

Soledad Murillo-k ondorengoa aipatzen du: “Denbora berezirako lekua da, berezkoaren lekua, indibidualtasunari eskainitakoa eta norbera bere buruaz arduratzeko ezaugarriari dagokio”. Egileak agerian utzi du gizonezkoak direla batez ere pribatutasun horretaz gozatzen dutenak. Emakumeei dagokienez, etxeko esparruarekin nahasi ohi da, eta, beraz, esparru hori lapurtzen zaie. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*) “Edukiak” testuan adierazten den zentzuan ulertu behar da.

Espazio publikoa

Ekoizpen arloarekin lotzen da, lan, gizarte, politika eta ekonomia bizitzarekin. Gizartean parte-hartzeko eta onarpenerako esparrua da. Esparru horretan gizonak egon ohi dira. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*) “Edukiak” testuan adierazten den zentzuan ulertu behar da.

Feminismoa

Bi sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasunaren alde egiten duen eta etengabe garatzen ari den teoria politikoa. Mundua, botere harremanak, gizarte egiturak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko era desberdina da. Errealitateari begiratzeko modu berri hau, emakumeen ikuspegitik alegia, mende honetako sisteman eta gizarte balioetan aldaketa gehien sortzen ari den motorra da. Horri esker, erakundeek beren gizarte eta ekonomia politikak aldatzea lortu da.

Simone de Beauvoir-ek indibidualki bizitzeko eta taldean borrokatzeko bizitzeko modu gisa definitzen du feminismoa. Egun, feminismoa bi korrante nagusitan banatzen da: berdintasunaren feminismoa eta desberdintasunaren feminismoa. Desberdintasunaren feminismoak emakume izateari ematen zaion zentzuaren eta tradizioz emakumezkoak izan diren balioei garrantzia ematearen aldeko apustua egiten du. Gizartean ahalmena eta boterea lortu nahi da eta egitura patriarkalak alde batera utzi.

Berdintasunaren feminismoak sexu-genero sistemaren estereotipoak behin gainditu ostean banakotasunaren integrazioa izango den gizartea du helburu. Emakumeek eta gizonek eskubide berak dituztela defendatzen du, eta horrela, gizartearen egitura guztietan berdintasunean esku hartu dezakete.

Berdintasunak ez du homogeneousatu nahi, baizik eta emakumeen eta gizonen

aniztasuna aitortu. Mitoak, estereotipoak eta ospea kentzea izan dira beti korrante horren inguruan. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*)

Pobreziaren feminizazioa

Herrialde gehienetan izaten den egoera orokorrari izena ematen dion fenomeno da eta emakumeak Lurreko biztanleria txiroaren gehiengo gisa ikusgai egiten dituen. Pobrezia eta herrialdeetako doikuntza-politikek emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzean zuzenean eragiten du, baita ongizatearen estatuak eskaintzen dituen baliabide ekonomiko eta sozialetarako sarbidean ere. Emakumeen baliabide ekonomikoetarako sarbidea mugatzen duten legeak eta administrazio-jarduerak sustatzen ditu. Horrela, Laugarren Munduan bizi diren pertsonak (garatutako herrialdeetan pobrezian bizi direnak) emakumeak dira eta gizarte bazterkeriako lekuak emakumeenak dira batez ere. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*)

Generoa

70. hamarkadako ikerketa feministek agertu zuten sexuaren kontzeptua ez zela baliagarria historian zehar kultura desberdinetan izan diren emakumeen eta gizonen arteko jardueren ezberdintasunak azaltzeko. Orduan egin eta txertatu zen genero kontzeptua azterketa kategoriatan gisa. Horren bidez, biologikoa, alegia, sexuari egozten zaiona, kulturaletik, generoak zehazten duena, desberdindu eta banatu daiteke.

Gerda Lerner-ek dio generoa "gizarte batean eta une zehatzetan sexuentzako egokiak diren jokoaren kultura-definizioa dela". Carole Pateman-ek ondorengoa baieztatzen du: "Emakumearen egoera ez du naturak, biologiak edo sexuak eman, politika eta gizarte artifizioak sortutakoa da". Alicia Puleo-ren ustez generoa "kulturalki sortutako izaera da, gizarte bakoitzak maskulino edo femeninotzat hartzen duena". Joan W. Scott-en hitzak: "Generoa esperientzia egituratzeko eta horri itxura emateko hainbat praktikan zehazten da. Generoa sexu biologikoen arrazoibide eta kultura egitura da".

Hau da, generoa, eta, ondorioz, generoen harremanak "gizarte-egiturak dira", gizarte eta garai batetik bestera aldatzen direnak, eta, beraz, aldatu, berriro interpretatu eta berreraiki daitezkeenak. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*)

Genero-ikuspegia

Politikaren batean ematen diren edozein jarduera edo esparrutan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gogoan hartu eta horietan arreta jarri. (*Genero-ikuspegia Europako Gida. Europako Carrefour.*)

Generoaren

Proposamen politikoak aztertu, emakumei bestela eragingo ote dien

araberako eraginaren azterketa	aztertzeko. Horrela, bereizkeriaren ondorioak indargabetzeko egokitu eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu da. (<i>Genero-ikuspegia Europako Gida. Europako Carrefour</i>).
Genero-adierazleak	Gizartean emakumeen eta gizonen egoera deskribatzen duten azterketarako aldagaiak dira. Genero-ikuspegitik gizarte, lan, prestakuntza eta ekonomia errealitatea ezagutzeko aldagai horiek erabiltzea eskatzen du. Horiek emakumeen eta gizonen presentziaren arteko konparaketa errazten dute eta estereotipoek indartu ditzaketen desberdintasunak identifikatzen ditu. Aldagai horiek erabiltzean emakumeen eta gizonen egoera edo presentziara hurbilketa egiten da, baita batzuen eta besteen arteko desberdintasunak tartean dituzten faktore zehatzen eraginera ere. Sexuaren araberako datuak bereiztea oinarrizko adierazlea da, errealitatea azaltzen diguten beste adierazleentzako bidea ematen baitu. (<i>Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.</i>).
Izatezko berdintasuna	Gizonen eta emakumeen arteko benetako parekotasun eraginkorra da. Legezko berdintasuna aldarrikatzearekin soilik ez da nahikoa desberdintasunaren ohiturak eta egiturak aldatzeko. Ekintza positiboko mekanismoekin aktiboki lan egitea eta hasierako desberdintasunei aurre egitea du helburu, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna errealitatea izan ahal izateko.
Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna	Berdintasunaren oinarrian oinarritua, gizartean dauden gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak zuzentzeko beharra agertzen du. Gizonak eta emakumeak berdintasunaren oinarritik abiatuta, eremu desberdinetan (ekonomia, politika, gizarte partaidetza, erabakiak hartzea) eta ekintzetan (hezkuntza, prestakuntza, lana) parte-hartzeko bermea da. (<i>Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.</i>).
Matxismoa	Emakumeei balioa murrizten dien portaera. Generoen arteko harremanak antolatzeke modu berezia da. Gizontasuna, indarra eta etxeko gaiekiko interes eza ezaugarri dituen gizezkoen portaera. Batzuen edo besteen botere-banaketa desberdina bien arteko harreman-asimetriara garamatza. Genero-jarrera (femeninoa edo maskulinoa) boterean desberdintasunak sortzen dituen ardatz nagusienetarikoa da. Familian ageri ohi da. Kulturaren sozializazio prozesuek gizezkoak goi-mailako diren sinesmena legitimatu dute: norbanakoaren boterea eta arrazoia izatearen baieztapena, gizonaren

<p>Tratu eta aukera berdintasunerako araudia</p>	<p>indarra eta emakumea bere zerbitzura dagoen menpekoa. <i>(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)</i></p> <p>Arau zehatzez eta arauetako atalez osatutako multzoa, oztopoak ezabatzen lagundu nahi dutenak, emakumeek gizartearen eremu guztietan erabateko garapena eta gehitzea izan dezaten.</p> <p>Araudi mota hori bai Europan, Erromako Itunaren 119. artikuluan jatorria duena (ordainsari berdintasunaren oinarria) eta zuzentarau eta bestelako araudietan garatu dena, baita nazio bakoitzeko legeetan ere aurki daiteke. Estatu kide bakoitzeko legeri nazionaletan, sexua dela eta bereizkeria ezaren oinarria, emakumeen errealitatearekin lotutako alderdiak zehazki arautzen dituen garatutako arau desberdinetako konstituzio testuetan aurki dezakegu. Adibidez, laneko legerian emakumeen lana sustatzeko edo lan-eremua eta amatasunaren osasun-laguntza arautzeko neurri zehatzak daude. <i>(Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.)</i></p>
<p>Berdintasun-planak</p>	<p>Gizartearen esparru guztietan emakumearen parte-hartze aktiboa lortzeko bideratutako estrategiak dira, epe labur edo epe ertainerako zehaztutako jardueretan definitzen diren helburuen bidez. Jarduerak administrazio publikoko entitateak eta gizarte-eragileak inplikatzeko dituzte. Jardute-eremuaren arabera Europako, estatuko, eskualdeko edo tokiko Berdintasunerako Planak daude. Era berean, Espainiar estatu osorako Berdintasunerako hiru plan egin dira eta Emakumearen Institutua da, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko menpeko erakundea, plan horiek bultzatzeko eta koordinatzeko arduraduna.</p>
<p>Aukera berdintasunerako politikak</p>	<p>Espainian, berdintasunaren printzipioa 1978ko Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen da: "Espainiar guztiak berdina dira legearen aurrean, jaiotze, arraza edo sexuarengatik bereizketarik nagusitu gabe".</p> <p>Hala ere, emakumeak eta gizonak beren errealitatea sortzen joan dira, gizonen emakumeen gaineko nagusitasunean eta balioen, hierarkiaren eta adierazleen nagusitasunean oinarri dituzten arau kulturaletatik abiatuta. "Eredu patriarkalean" oinarritutako gizarte honetan, pertsonaren sexuaren arabera jardute-espazio desberdinak esleitu dira. Errealitate horrek legezko berdintasunaren aplikazio zorrotzak desberdintasunak sortzen eta errepikatzen jarraitzen baino ez du laguntzen; desberdintasunak berdina tratatzeak, horiekin jarraitzen eta horiek legeztatzen baino ez duelako laguntzen. Emakumeen bizipenek, eta beren etengabeko aldarrikapenek, botere publikoak oraindik ere bereizkeria mota desberdinak pairatzen dituzten taldeen alde egingo duten neurriak hartzen behartu dituzte. Horrela, Aukera Berdintasunerako printzipioa</p>

sortzen da. Aukera berdintasunak gizonek eta emakumeek eremu desberdinetan (ekonomia, politika, gizarte partaidetza, erabakiak hartzea) eta ekintzetan (hezkuntza, prestakuntza, lana) parte-hartzeko aukera izatea esan nahi du. Aukera berdintasunerako politikak hezkuntzako, osasuneko, laneko, partaidetzako, hirigintzako, ... politika orokorretako plangintzan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzen dituztenak dira. (*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*)

Bereizketa ezaren printzipioa

Sexu bereizkeria ezaren printzipioa aldarrikatzen duten nazioarteko arau asko daude. 1948. urteko abenduaren 10ean, Nazio Batuetako Batzar Nagusiaren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren Aldarrikapenean sexu bereizkeriarik gabeko genero-berdintasunerako aldarrikapena jasotzen da. Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko Europako Hitzarmenak, 1950.eko azaroaren 4koa, sexu bereizketarik egin gabe, onartutako eskubide eta askatasunez gozatzeko berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen du. Europako Ekonomia Erkidegoa Eratzeko Itunean, 1957ko martxoaren 25ekoa, 119. artikuluan, "lan berdinean gizonezkoen eta emakumeen ordainketan berdintasuna" esplizituki aldarrikatzen du".

Emakumeen kontrako edozein bereizkeria mota ezabatzeko hitzarmenean, 1979ko abenduan egindakoa eta Nazio Batuek antolatutakoa, emakumeen kontrako bereizkeria honela definitzen da: "Sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterkeria edo murrizketa, emakumeen (beren egoera zibila kontuan hartu gabe) onarpena, gozamina edo jarduera gutxiestea edo ezeztatzea helburu edo ondorio duena. Hori guztia, gizonen eta emakumeen berdintasunerako oinarriaren, giza eskubideen eta politika, ekonomia, gizarte, kultura edo bestelako eremuetako funtsezko askatasunen gainean".

Espanian, berdintasunerako printzipioa 1978ko Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen da.

(*Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.*)

Segregazioa lan-merkatuan

Emakumeak lanbide edota lan-familia berezietan pilatzeari deritzo. Oro har, lan baldintza ez oso egokiak, soldata baxuak eta etengabeko prestakuntzarako eta trebetasun gehigarriak lortzeko aukera gutxi izan ohi ditu ezaugarri gisa.

Feminizitatutako lanak dira, beraz, lan-merkatuan desberdintasunak sortzen dituztenak, horiei lotutako balioa eta ordainsaria murriztagoa delako.

Segregazioa horizontala izan daiteke, pilaketa lan-familia edo lan berezietan gertatzen denean. Bertikala ere izan daiteke, emakumeak erantzukizun gutxiko lanpostuetan pilatzen direnean.

Sexismoa

Emakumeen gutxiagotasunean oinarritutako teoria da, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoek zehazten dutena. Ordena sinbolikoaren eraketak, emakumeak gizonak baino gutxiago direla uste duenak, sexu bat bestearen menpe egotera bideratzen duen portaera eta jarrera estereotipatuak biltzen ditu. Emakumezko egile batzuk matxismoaren eta sexismoaren arteko desberdintasunak ezartzen dituzte. Izan ere, matxismoa jarrera inkontzientea den heinean – portaera matxista duen pertsona bati horren berri emanez gero, bere jarrera aldatzea erabaki dezake-, sexismoa jarrera kontzientea da, emakumeak gizonezkoen mende egotera laguntzen duena.

Beirazko sabaia

Emakumeek beren garapen profesionalaren unerren batean aurkitzen duten oztopo ikusezina da. Beraz, behin puntu horretara iristean, emakume gutxi gaitzen dute oztopo hori eta gehienek beren ibilbide profesionalaren garapena gelditzen dute. Gelditze horren arrazoiak batez ere enpresa munduan dauden aurreiritziek sortzen dituzte. Aurreiritziak ondorengoak dira: emakumeek erantzukizuneko lanpostuetan aritzeko gaitasun gutxi izatea, amatasunarekin lotutako lan erabilgarritasuna eta etxeko eta familiako erantzukizunak izatea. Zeregin horiek sustapen profesionaleko etapekin bat etorri ohi dira. (Berdintasunerako Hitzak. Herritarren Oinarrizko Liburutegia.).

Genero-indarkeria

Nazio Batuek, 1980. urtean, emakumeen kontrako indarkeria munduan estalitako krimenik ohikoenetariko gisa aitortu zuten. Emakumeen kontrako indarkeriaren desagertzearen inguruko Nazio Batuen Aldarrikapenak indarkeria hori “emakume izateagatik izaten den edozein indarkeria, eta ondorio gisa emakumeengan izan dezakeen kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikotzat definitzen du, baita horiek egiteko mehatxua, gogorkeria edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere, bai bizitza publikoan zein pribatuan. Emakumeek jasaten dituzten mota guztietako erasoak gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunen beste adibide bat gehiago dira. Sexu baten ustezko nagusitasunean oinarritzen den indarkeriak, gizarte antolamendu osoari eragiten diona, eta gure herrialdeak gaur egun duen gizarte eta politika arazorik larriena bihurtu dena, gure eguneroko errealitatearen zati izaten jarraitzen du.

Indarkeria horren agerpenak askotarikoak dira. Agerikoenak: tratu txar fisiko eta psikikoak, etxean gertatzen direnak; sexu-erasoak, sexu-jazarpena, bortxaketak ... Bestalde, indarkeria sofistikuena ere badago, esaterako, publizitatean proiektatzen den eta errealitatearekin bat ez datorren emakumeen irudia. 1995ean Beijing-en (Txina) egin zen Emakumeen IV. mundu-

konferentzian, emakumeen kontrako indarkeria herrialdeen berdintasunerako, garapenerako eta bakerako oztopo zela onartu zen, emakumeei beren giza eskubide eta funtsezko askatasunez gozatzeko aukera galarazten diena. Planeta osoan beren senar edo bikoteen esku hildako edo tratatu txarrak pairatutako emakumeen kopurua hain da adierazgarria eta orokorra, ezen benetako aitorpena behar dela, eta horrek genero indarkeriari buruz hitz egitera garamatza: etxeko indarkeria, sexu-erasoak, mutilazioak, etab.

BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA

- Nafarroako Gobernua, "Nafarroako Foru Erkidegoko emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010)". Nafarroako Gobernua, Gizarte Ongizate, Kirola eta Gazteria Departamentua (2006).
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko egiazko aukera-berdintasunerakoa.
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren Berdintasunerako Plana (2009-2011).
- Diez de Ure, Ana, "Aukera Berdintasunerako I. Plana", Zizur Nagusiko Udala (2006ko azaroa).
- Irigoien Garcia, Josune, "Ultzama eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen gizonen eta emakumeen aukera berdintasunerako I. Plana". Udalerriak: Anue, Atetz, Basaburua, Lantz, Odieta eta Ultzama. 2008ko abendua.
- Aranaz Hernández, Idoia, "Lekunberriko emakume eta gizonen egoeraren inguruko azterketa eta diagnosis" (2008ko urtarrila).
- Terra SL eta Prometea SC, Mendialdeko Agenda 21, hainbat dokumentu.
- *"Informe de resultados. Municipio de Lekunberri. Percepción de la Calidad de los Servicios y de buena Administración"*. Nafarroako Foru Erkidegoko Arartekoaren Instituzioa (2007ko otsaila).